

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

4959

3/2014 LEGEA, azaroaren 13koa, 2014-2017 Euskal Estatistika Planari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak azaroaren 13ko 3/2104 Legea, 2014-2017 Euskal Estatistika Planari buruzkoa onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei

ZIOEN AZALPENA

Euskal Herriko Estatutuaren 10. artikuluko 37. zenbakiaren arabera, «Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du honako arloetan: (...) 37. Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika bere helburu eta eskumenetarako».

Artikulu hori aplikatuz, Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legea onetsi zuen. Lege horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera arautu zen, jarduera horretan jardungo zuen erakundea eratu zen eta lurralde historikoetako eta EAEn dauden beste erakunde publiko batzuetako estatistikak arautu zituen. Lege hori, beraz, ezinbesteko abiapuntua izan da.

Dena den, estatistika-jardueraren erregulazioa ez da arau horretara mugatzen, estatistika-jarduera Euskal Estatistika Planak antolatuko duela aurreikusi baita. Plana indarrean dagoen bitartean, estatistikak eta horiei lotutako bestelako jarduerak arautuko dira, baina horretarako lege bidez onetsi behar da plana. Jarduera-esparruaren goren puntua da plana, eta urteroko estatistika-programek garatuko dute.

Aurreko planak, 1989-1992, 1993-1996, 1997-2000, 2001-2004, 2005-2008 eta 2010-2012 aldietakoak, urteko estatistika-egitarauen bidez garatu ziren eta aldi bakoitzean zein estatistika egingo zen, nork egingo zituen eta zein baldintza tekniko emango ziren zehaztu zuten. Plan haue-tako azkenaren indarraldia bukatu denez, Eusko Legebiltzarrak berri bat onetsi behar du.

Hori dela bide, lege honen bidez, 2014-2017 Euskal Estatistika Plana onesten da. Lau urte horietan zehar Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-antolamenduak egingo dituen estatistikak eta antzeko jarduerak ezartzen dira planean.

Ondorioz, legearen artikuluetan, erakundearen zereginak (eremu materiala) eta epeak (den-bora eremua) zehazten dira.

Legearen 1. artikuluan zehazten da haren eremu materiala; hain zuzen, testu artikulatuaren eranskinean, egin behar dituen estatistika eta antzeko jarduerak zehazten dira. Eranskina, gainera, arau balio berarekin sartzen da legean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 6.2 artikuluan ezarri da plana indarrean dagoen bitartean estatistikak eta horiei lotutako bestelako jarduerak jasoko direla. Baina 2014-2017 Euskal Estatistika Planak, egiteko horiek aipatzeaz gainera, eragiketako bakoitzaren ezaugarri nagusiak ere azaltzen ditu, hobeto defini daitezkeen horien ezaugarriak eman behar direla uste delako. Horrekin ez da, ordea, urteko estatistika-egitarauen eraginkortasuna ukitzen, hauetan eragiketako bakoitzerako behar diren zehaztapenak ematen baitira. Gainera, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen

16. artikuluan ezarri bezala, estatistikak eta azterlanak egokitu behar dira, eta horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-antolamenduak sistematikoki sexuaren aldagaia sartuko du Euskal Estatistika Planaren barruan egiten diren estatistika-eragiketetan. Ildo honetan, eta ikuspegi horren garrantzian sakonduz, Jaurlaritzaren borondatea eta konpromisoa da ezen Estatistikari buruzko 4/1986 Legearen 39.3 artikulua araberako Eusko Jaurlaritzak Euskal Estatistika Kontseiluan izendatu ditzakeen pertsona kopuruaren barruan egon dadila, modu sistematikoan, Emakunde erakunde autonomoaren ordezkari bat.

Eranskinean, beraz, eragiketak banan-banan aipatzeaz gainera, bakoitzaren ezaugarriak ere azaltzen dira. Hona hemen eragiketen ezaugarriak:

- a) Helburu orokorrak, urteko estatistika-egitarauetan garatzen direnak.
- b) Erakunde arduraduna. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen II. tituluko III. kapituluaren aipatutako eskumena dauka. Eskumen hori legearen 35. artikuluan zehaztutako Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-antolamenduaren esparruko organo eta erakundeei ematen zaie soilik.
- c) Beste erakunde parte-hartzaile batzuk. Partaide gisa aritzeko aukera dute, bai eragiketa osoan zehar, bai eragiketaren faseren batean.
- d) Gai-arloa. Ikerketarekin lotutako jardueraren esparru generikoa mugatzea da helburua.
- e) Egoera. Estatistika-eragiketari lehenagotik ekin zaion ikusi beharra dago, hurrenez hurren gauzatu den edo honakoa bere lehendabiziko esperientzia den kontuan hartuta.
- f) Emaitzak zenbatero hedatuko diren. Emaitzak zenbatero izango dituzten jakinarazten zaie herritarrei, lana egiteko maiztasuna alde batera utzita. Informazioa behin eta berriz bilduta edo datuak behin eta berriz landuta lortutako emaitzak izan daitezke.
- g) Eragiketa-mota. Estatistika zein motatakoa den azaldu nahi da, batez ere informazio-bilketarik ote dakarren berekin (direktoria, zentsua, laginketa bidezko inkesta), edo abiapuntu izan diren informazioei bestelako xehetasunik gehitzen zaien (bilketa, sintesia), edo tresna osagarriren bat ote den eta azken horrek normalizazioa, metodologia hobetzea edo estatistika garatzea ote dakarren.

Bestalde, 4. artikuluan ezarri da erakundeei, pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek ezinbestean eman behar dutela plan honetan arautzen diren estatistikak gauzatzeko behar den informazioa.

Bestalde, ezin da ahaztu Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak estatistiken ekoizpena Administrazioako datuen bidez egitearen alde egiten duela; Herri Administrazioan erabiltzen diren prozedurak berritzeko egindako ahaleginak ahalik eta errentagarriren bihurtu nahi ditu, kudeaketa eta estatistika xedeetarako aldi berean erabil daitezkeen, eta, horrela, ahal den neurrian, herritarrei informazioa bi aldiz ez eskatzeko.

Amaitzeko, lege honetako azken xedapenetan planaren oinarriko eremuetatik bigarrena jorrazten da: denbora eremua. Planaren indarraldia 2017ko abenduaren 31n amaituko dela ezartzen da, hau da, aurrekontuen ekitaldiak amaitzen direnean; baina, planaren indarraldia amaitzen denetik aurrera besterik onetsi ez bada, indarraldia luzatu ahal izango da.

1. artikulua.– Onespena eta edukia.

1.– 2014-2017 Euskal Estatistika Plana onesten da.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera 2014-2017 aldirako arautzen duen tresna da plan hori; hala ere, behar izanez gero haren iraupena luzatu egingo da.

3.– Lege honetako eranskinean zehazten diren estatistikak eta antzeko jarduerak burutu beharra jasotzen du planak.

2. artikulua.– Urteko estatistika-egitarauak.

1.– 2014-2017 Euskal Estatistika Plan hau urteko estatistika-egitarauen bidez garatu eta burutuko da.

2.– Urteko estatistika-egitarauetan zehaztu eta definituko dira estatistika-eragiketa horiek gauzatzeko ezaugarriak, betiere aurrekontuko zuzkiduren barruan.

3.– Salbuespen gisa, urteko estatistika-egitarauak plan honetako eranskinean jasotako ezaugarrietako bat aldatu ahal izango dute; horretarako, alabaina, lehenbizi Euskal Estatistika Batzordeak aldeko txostena egin beharko du. Aldaketa egiteko arrazoiak eman beharko dira. Hori gorabehera, inoiz ez dira aldatuko eragiketaren izaera eta helburuak.

3. artikulua.– Estatistika-jardunaren araubide juridikoa.

1.– Planaren ondoriozko estatistika-jardunean Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 2. artikulua eta ari garen lege hauxe aplikatuko dira.

2.– Plana garatze eta egikaritze aldera onartzen diren urteko estatistika-egitarauak sartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 2. artikulua 1. paragrafoan ezarritako arauzko xedapenetan.

3.– Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jardunean kontuan izan beharko dira Estatistika Europarren Praktika Onen printzipioak, zeinak aurreikusita baitaude Batasuneko estatu kideetako agintaritzen independetzia, integritate eta erantzukizunari buruz Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseilu Europarrari helarazitako Komunikazioan, bai eta estatu kideetako eta Batasuneko agintaritzen independentzia, integritate eta erantzukizunari buruz Batzordeak egingadako Gomendioan (COM 2005, 217 azkena, 2005eko maiatzaren 25ekoa).

4.– Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera egindako estatistika ofizialei eta Jaurlaritzako sailen estatistika-organoek egindako estatistikei dagozkien emaitzak beti publikoak izango dira eta formatu berrerabilgarrian argitaratu beharko dira. Interesatu orok eskatu eta erabili ahal izango ditu estatistika horien datuak.

4. artikulua.– Nahitaez erantzun beharra.

1.– 2014-2017 Euskal Estatistika Planean jasotzen diren estatistikak nahitaez bete behar dira.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 10.2 artikuluan ezartzen diren pertsonak eta erakundeak eman beharreko datuen artean sartuko dira etniari, osasunari eta bizitza sexualari lotutako datu pertsonalak.

3.– Ukitutako pertsonak berariaz eta idatziz baimenduta soilik erabili ahal izango dira ideologia, afiliazio sindikala, erlijioa eta sinesteak agertzen dituzten izaera pertsonaleko datu pertsonalak, bai eta pertsonaren eta familiaren intimitatea ukitu dezaketen zirkunstantziak, arau bidez ezartzen direnak.

4.– Baimena ematen zaie informatzaile izaera daukaten entitate publiko edo pribatuei, kasuan kasuko eragiketa estatistikoaren erregulazioan ezarritakoaren arabera, eragiketa estatistikoaren

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

erakunde jasotzaileei lagatzeko, interesatuen baimenik gabe, beraiei buruz dauzkaten izaera pertsonaleko datuak.

5.– Dena den, estatistika antolakundeari emandako datuak sekretu estatistikoaren eraginean egongo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 19tik 23ra arteko artikuluetan ezarritakoa betez.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Planaren indarraldia.

2014-2017 Euskal Estatistika Plana indarrean jartzen denetik 2017ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Luzapena.

Planaren indarraldia amaitzen denerako beste Euskal Estatistika Planik onetsi ez bada, automatikoki luzatu egingo da, harik eta Ppan berriren bat indarrean jarri arte. Alabaina, ez dira sartuko aurrez ezarritako epeak edo aldiak direla medio kanpoan geratzen diren estatistika-jardunak.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 14a.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

AZAROAREN 13KO 3/2014 LEGEAREN ERANSKINA

ERAGIKETA ESTATISTIKOEN ZERRENDA

010106	Gizarte-adierazleak
010121	Adierazle demografikoak
010123	Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika
010130	Biztanleriaren estatistika-erregistroa
010132	Estatistika soziodemografikoen datu-basea (BSD)
010151	Eraikinen eta lokalen zentsua
010152	Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua
010154	Biztanleen udal estatistika
010180	Emakumeak landa-ingurunean
010301	Demografia-proiekzioak
010302	Jaiotzen estatistika
010303	Heriotzen estatistika
010304	Ezkontzen estatistika
010305	Gizarte-ezberdintasunak hilkortasunean
010306	Biztanleriaren proiektzioak epe oso laburrera
010311	Migrazio-mugimenduen estatistika
010313	Inkesta demografikoa
010314	Ezkontza-hausteen estatistika
010800	Euskal AEn bizi diren atzerriko etorkinen inkesta
010899	Kapital sozialaren inkesta
010901	Bizi-baldintzen inkesta
010902	Denbora-aurrekontuen inkesta
010903	Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta
010904	Norberaren ongizate-inkesta NOI
010905	Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta
010906	Euskal familien eta familia-etxeetako arazo sozialak
010914	Gazteriaren panorama
010915	Panorama demografikoa
010930	Mugikortasunaren inkesta
020702	Mapa soziolinguistikoa

020703	Inkesta soziolinguistikoa
020709	Euskararen aurrekontuak
020711	Helduen euskalduntzearen estatistika: ikasleak eta euskaltegiak
020713	Euskararen gizarte-azpiegitura publikoen eta pribatuen zentsua
020715	Funtzionarioen estatistika, euskara-mailaren arabera (hizkuntza eskakizuna) eta administrazio-motari jarraiki
030501	Osasunaren inkesta
030502	Ospitale-estatistika
030503	Ospitalez kanpoko estatistika publikoa
030505	Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen estatistika
030506	Osasunaren panorama
030507	Osasun-adierazleak
030508	Euskadi eta drogak
030509	Gizarte integrazioaren eta osasunaren inkesta
030510	Elikadura inkesta
030580	Ospitaleetako erikortasun-estatistika
030581	Gizarte-ezberdintasunak erikortasunean
030582	Minbiziaren eraginean eta hura gainditzeko aukeretan dauden ezberdintasun sozialak
040601	Eskola-jardueraren estatistika
040603	Unibertsitatearen estatistika
040605	Hezkuntzaren panorama
040606	Hezkuntzaren udal estatistika
042911	Irakaskuntza publikoaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika
042913	Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika
043201	Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G
050401	Lanaren estatistikak
050402	Biztanleria aktiboaren kualifikazioaren inkesta
050403	Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta
050404	Lan-merkatuaren zentsua
050407	Biztanleria aktiboaren udal estatistika
050480	Lan-lesioen estatistika
050903	Laneko baldintzen inkesta
061001	Gizarteratzeko eta gizarte-ekintzako gastu-estatistika

061002	Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika
061003	Gizarte-zerbitzuen eskariaren estatistika (gizarte-ekintza eta gizarteratzea)
061004	Etixerik gabeko pertsonen inkesta
061005	Mendeko pertsonen estatistika
061006	Etixerik gabeko pertsonentzako baliaabideak
061006	Etixerik gabeko pertsonentzako baliaabideak
061007	Genero berdintasunaren adierazlea
070191	Finantzaketa eta gastu publikoa kulturari
070194	Fitxategien estatistika
070196	Irakurketa-sare publikoko liburutegien estatistika
070197	Museoen eta bildumen estatistikak
070198	Arteen eta kultura-industrien estatistika
070914	Euskal gazteria
082714	Trafiko-istripuen urtekari estatistikoa
082717	Mugikortasunaren soziologia
090001	Ingurumenaren inkesta - Familiak
090203	Atmosfera-kutsaduraren estatistika
090204	Ingurumenaren informazioa kudeatzeko sistema- IKS
090205	Berotegi-efektuko gasen inbentarioa
090207	Ingurumenaren adierazleak
090208	Nekazaritzako elikagaien lehen sektoreko ingurumen- adierazleak
090209	Hondakin arriskutsuen estatistika
090211	Hondakin ez-arriskutsuen estatistika
090212	Kontsumo publikoko uren kalitatearen estatistika
090213	Bainu-uren kalitatearen estatistika
090214	Ur-masen kalitatearen estatistika
090215	Ur kontsumoaren estatistika
090217	Materialen fluxuaren estatistika
090218	Hiri-hondakin solidoen estatistika
090219	Eraispeneko eta eraikuntzako hondakinen estatistika
090221	Hondakinak kudeatzeko azpiegituren inbentarioa
090222	Ingurumena kontserbatzearen eta babestearen estatistika
090223	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen aitorpenaren estatistika
090224	Ontzien aitorpenaren estatistika

090225	Kutsatzaileen isurpenen eta transferentzien euskal erregistroaren estatistika-PRTR
090226	Atmosferara igorritako kutsatzaileen inbentarioa
090227	Ibilgailuen estatistika, bizitza baliagarriaren amaieran
090300	Euskal Hiria. Lurralde-funtzionamenduaren eta iraunkortasunaren adierazleak
102113	Basoen inbentarioa
102114	Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta
102115	Euskal nekazaritzaren kontabilitateko informazio-sarea ENKIS
102117	Ganadu-hilketaren estatistika
102119	Baso-estatistikak
102122	Lurraren prezioen eta landa-errentamenduen kanonen estatistika
102123	Ibaietako eta itsasoko akuikulturaren estatistikak
102124	Nekazaritzaren azken produkzioaren estatistika
102125	Lurren banaketa orokorraren eta hainbat laborek hartutako azaleraren estatistika
102126	Lurralde-garapenaren adierazleak
102134	Abereen merkataritza-mugimenduaren estatistikak
102135	Abeltzaintzako produkzioen estatistikak, esne-produkzioarenak izan ezik
102136	Abelburuen estatistikak, hausnarkariena izan ezik
102137	Hausnarkarien kopuruaren eta esne-produkzioaren estatistikak
102141	Nekazaritza-zentsua
102142	Nekazaritzako eta arrantzako Interneteko zerbitzari estatistikoa
102143	Nekazaritza, arrantza eta elikaduraren datu-bankua
102145	Nekazaritzako elikagaien sektorearen panorama estatistikoa
102211	Lehorreratzeen eta lehenengo arrain-salmentaren estatistika
102212	Arrantza-sektorearen inkesta ekonomikoa
112311	Industriaren estatistika
112312	Industria-produkzioaren indizea
112314	Euskal industriaren panorama
112332	Euskal AEko energia-datuak
122401	Eraikuntzaren estatistika
122403	Eraikuntzaren koiunturako indizea
122404	Etxebizitzen udal estatistika
122411	Eraikuntzaren eta etxebizitzen estatistika (EEEE)
122414	Etxebizitzen beharren eta eskariaren inkesta (EBEI)

122416	Etxebizitza hutsen estatistika (EHE)
132612	Ibiltur- Euskal AE bisitatzen duen turistaren ezaugarriak eta joera
132613	Familitur-Euskal AE
132614	Frontur-Euskal AE
132680	Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta
132710	Garraioaren eskariaren irudirako datuak
132713	Bidaiariak garraiatzearen estatistika
132714	Salgaiak errepidez garraiatzearen estatistika
132903	Zerbitzuen koiuntura-indizea
133000	Zerbitzuen estatistika
142511	Merkataritzaren eta konponketaren inkesta
142530	Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)
142533	Azalera handietako merkataritzaren indizea-AHMI
143101	Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)
153011	Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak
153016	Aurrekontuak egikaritzearen estatistika
170111	Input-output taulak
170112	Kontu ekonomikoak
170114	Finantzaz besteko enpresen ondare-kontuak
170115	Hiruhileroko kontuak
170116	Kanpo-sektorerako eta kanpotiko inbertsio-fluxuen estatistika
170117	Hezkuntzaren kontua
170118	Osasunaren kontua
170120	Udal BPG
170910	Gizarte-babesaren kontua
172101	Nekazaritza eta baso-sektorearen kontu ekonomikoak
172502	Egiturazko adierazleak
172503	Familia-gastuaren estatistika
172514	Udalerrri mailako iraunkortasun-adierazleak
172515	Udal ekipamendu eta azpiegituren inkesta
172525	Ekoeuskadi-2020 adierazleak
172615	Turismoaren kontu satelitea

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

173001	Administrazio publikoen kontuak
173003	Euskal administrazioen kontu ekonomikoak
173301	Ekonomia sozialaren kontu sateliteak
173302	Etxeko lanaren kontu satelitea
173303	Kulturaren kontu satelitea
173304	Ingurumenaren kontuak
173401	Egiturazko informazio ekonomikoaren datu-basea
173402	Pertsonen eta familien errentaren estatistika
173403	Koiunturazko informazio ekonomikoaren datu-basea
173404	Pertsonaren eta familiaren errenta-panela
182113	Nekazaritzako prezioak eta prezio-indizeak
182313	Industria- prezioen indizea
182415	Higiezinaren eskaintzaren inkesta
182480	Eraikuntzaren kostuen indizea
182532	Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI
190904	Euskal ekonomia sozialaren estatistika
190905	Euskal ekonomia sozialaren emaitzen aurrerapena
200141	Etxebizitzaren direktorioa
200160	Osasun-eremuen lurraldeko datu-basea
200161	Lurraldeko datu-basea
200162	Izendegiak eta kodeak
200163	Jarduera ekonomikoen direktorioa
200165	Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika
200166	Merkataritza-sozietateen demografia
200190	Langileen estatistika Euskal AEko sektore publikoan
200206	Udalplan, informazio geografikoaren sistema eta lurralde-datuen bankua
200208	Planeamenduaren inbentarioa
202131	Nekazaritzako ustategien direktorioa
202221	Arrantza-flotaren direktorioa
202723	Garraio-enpresen direktorioa
202724	Garraio eta biltegiatzearen sektoreko enpresen demografia
203021	Administrazio publikoen direktorioa

203022	Atari publikoen direktoria
203023	Zerbitzu eta prozedura publiko elektronikoaren direktoria
204000	Administrazioko erregistroen inbentarioa
210164	Informazio geografikoaren datu-basea
218101	Estatistika-egozpeneko metodo automatikoen I+G
218102	Estatistika-unitateen tipologiak
218103	Kalitatea produkzio estatistiko ofizialean
218106	Informazioa biltzeko moduen I+G
218108	Erregistroak bateratzeko metodoen I+G
218109	Euskal estatistika antolakunderako (EEA) prestakuntza estatistikoa
218110	Fitxategiak eta makrotaulak babesteko metodo estatistikoen I+G
218113	Laginketak optimizatzeko I+G
218115	Ereku txikiak zenbatespenen I+G
218117	I+G estatistika-datuak bistaratzeko
218120	Proiektu teknikoaren eta galdera-sorten erregistroa
218122	Erantzun-eraren estatistika-analisia
218124	I+G arazketa selektiboa egiteko metodoetan
218125	Estatistika ofizialerako galdera-sorten diseinua eta ebaluazioa
218126	I+G inkestak bateratzeko metodoetan
220122	Informazioaren gizartearen inkesta. Familiak
220126	Informazioaren gizartearen panorama
222140	Informazioaren gizartearen inkesta. Lehen sektorea
222141	Informazioaren gizartearen inkesta Administrazioan. IGI- Administrazioa
222143	E-administrazioaren barometroa
222144	Sofistikazio elektronikoaren indizea
222315	Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorea-IKT
223002	Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak
223202	Berrikuntzaren inkesta
223203	Berrikuntzako adierazleen panela (IUS)
223204	Goi teknologiako adierazleen panela
223205	Bioteknologiako I+Gren estatistika
223207	Patenteen estatistikak

223208	Zerbitzu publiko elektronikoen estatistika-ZPEE
990101	Euskal urtekari estatistikoa
990104	Udal-adierazleak. Serieak
990107	Euskadi 28-EBn
990108	Hauteskundeetako emaitzen artxiboa
990127	Ikastetxentzako estatistika-informazioa (eskolako webgunea)
990128	Pirinioko estatistika-atlasa
990170	Euroeskualdea zifretan
990900	Txosten sozioekonomikoa
999101	Datu estatistikoen bankua
999102	Interneteko zerbitzaria
999103	Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren atala Eustaten webgunean

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010106 Gizarte-adierazleak**Helburu orokorrak** Adierazle soziodemografiko sistematikoak prestatzea, euskal gizartearen egoera eta dituen aldaketak deskribatzeko. Giza garapenaren indizea ere barne dago.**Organismo arduraduna** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Beste organismo parte-hartzaileak****Gai-eremua** Demografia eta Gizarte-azturak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Etengabea**Eragiketa-mota** Sintesia

010121 Adierazle demografikoak**Helburu orokorrak** Euskal AEko demografia-egoera azaltzen duten adierazle batzuk lortzea, denboran izan duten bilakaera aztertu ahal izateko.**Organismo arduraduna** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Beste organismo parte-hartzaileak****Gai-eremua** Demografia eta Gizarte-azturak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Bost urtekoa**Eragiketa-mota** Sintesia

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010123 Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika

Helburu orokorrak Biztanleriaren eta etxebizitzaren zenbaketa zehatza egitea eta biztanleriaren egitura ezagutzea, zentsu arteko estatistiketarako oinarri gisa eta demografia-adierazleentarako eta biztanleria proiektzioentarako lagungarri izan dadin.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Bost urtekoa

Eragiketa-mota Zentsua

010130 Biztanleriaren estatistika-erregistroa

Helburu orokorrak Egiturazko demografia-estatistikak (zentsuak, erroldak) nahiz mugimenduzkoak (berezkoa, migrazioak) biltzea.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Etengabea

Eragiketa-mota Zentsua

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010132 Estatistika soziodemografikoen datu-basea (BSD)

Helburu orokorrak Biztanleriari, jarduerari, ikasketa mailari, euskara mailari eta etxebizitzari buruzko banakako informazio zehatza bildu, bateratu eta lantzea, urtean behin, biztanleriaren erregistroko informazioa eguneratzeko.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak Enplegua eta Gizarte Politikak Saila

Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Etengabea

Eragiketa-mota Tresna osagarria, gidazerrenda izan ezik

010151 Eraikinen eta lokalen zentsua

Helburu orokorrak Euskal AEko eraikinen eta lokalen kopurua eta banaketa zehaztea. Haien erabilerari buruzko informazioa ematea. Osagai horien posta-identifikazioa hobetzea.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Hamar urtekoa

Eragiketa-mota Zentsua

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010152 Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua

Helburu orokorrak Biztanleen, etxebizitzaren eta familien zenbaketa zehatza. Biztanleen, familien eta etxebizitzaren egituraren eta bilakaeraren ezagutza. Errola arteko estatistiketan oinarri gisa erabiltzea, eta biztanleen gaineko adierazle eta proiektzioetan laguntzea.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Hamar urtekoa

Eragiketa-mota Zentsua

010154 Biztanleen udal estatistika

Helburu orokorrak Biztanleen Erregistro Estatistikoaren aprobetxamendu estatistikoa egitea, biztanleen kontaketa zehatza egiteko eta horien ezaugarri nagusiak ezagutzeko.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Urtekoa

Eragiketa-mota Zentsua

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010180 Emakumeak landa-ingurunean

Helburu orokorrak Euskal AEko baserri-ingurunean emakumeak duen egoera eta egoeraren bilakaera aztertzea, bereziki lanbidez nekazari denarena.

Organismo arduraduna Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística
Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Lau urtekoa
Eragiketa-mota Laginketa bidezko inkesta

010301 Demografia-proiekzioak

Helburu orokorrak Euskal AEko eta lurralde historikoetako biztanleria epe labur, ertain eta luzera zenbatestea.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak
Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Bost urtekoa
Eragiketa-mota Sintesia

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010302 Jaiotzen estatistika**Helburu orokorrak** Euskal AEn izaten diren edo hango biztanleei dagozkien jaiotzei buruzko informazioa lortzea.**Organismo arduraduna** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Beste organismo parte-hartzaileak****Gai-eremua** Demografia eta Gizarte-azturak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Hiru hilekoa**Eragiketa-mota** Zentsua

010303 Heriotzen estatistika**Helburu orokorrak** Euskal AEn izaten diren eta hango biztanleei dagozkien heriotzen gaineko informazioa lortzea.**Organismo arduraduna** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Beste organismo parte-hartzaileak** Osasuna Saila**Gai-eremua** Demografia eta Gizarte-azturak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Hiru hilekoa**Eragiketa-mota** Zentsua

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010304 Ezkontzen estatistika**Helburu orokorrak** Euskal AEn izaten diren eta hango biztanleei dagozkien ezkontzei buruzko informazioa lortzea.**Organismo arduraduna** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Beste organismo parte-hartzaileak****Gai-eremua** Demografia eta Gizarte-azturak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Hiru hilekoa**Eragiketa-mota** Zentsua

010305 Gizarte-ezberdintasunak hilkortasunean**Helburu orokorrak** Euskal AEn bizi den biztanleriaren hilkortasunean dauden gizarte-ezberdintasunak aztertzea eta monitorizatzea.**Organismo arduraduna** Osasuna Saila**Beste organismo parte-hartzaileak** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Gai-eremua** Demografia eta Gizarte-azturak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Bost urtekoa**Eragiketa-mota** Sintesia

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010306 Biztanleriaren proiektzioak epe oso laburrera

Helburu orokorrak Urtean zehar biztanleriak izan duen bilakaera zein izan den jakitea.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Eragiketa berria

Hedatzeko aldizkakotasuna Hiru hilekoa

Eragiketa-mota Sintesia

010311 Migrazio-mugimenduen estatistika

Helburu orokorrak Jatorria eta helmuga Euskal Aeko udalerrietan duten migrazio-mugimenduei buruzko estatistika jarraituak lortzea, baita udalerrri arteko mugimenduei buruzkoak ere.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Urtekoa

Eragiketa-mota Zentsua

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010313 Inkesta demografikoa**Helburu orokorrak** Ezkontzen eta ugalkortasunaren arloetako demografia-informazioa zabaltzea. Bi sexuei buruzko ezkontza-historia eta emakumeen ugalkortasunari buruzko historia.**Organismo arduraduna** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Beste organismo parte-hartzaileak****Gai-eremua** Demografia eta Gizarte-azturak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Bost urtekoa**Eragiketa-mota** Laginketa bidezko inkesta

010314 Ezkontza-hausteen estatistika**Helburu orokorrak** Banantzei, dibortzioei eta baliogabetzei buruzko urteko informazioa lortzea, gertakari horiek inguratzen dituzten gorabeherak ezagutzeko.**Organismo arduraduna** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Beste organismo parte-hartzaileak****Gai-eremua** Demografia eta Gizarte-azturak**Egoera** Eragiketa berria**Hedatzeko aldizkakotasuna** Bi urtekoa**Eragiketa-mota** Zentsua

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010800 Euskal AEn bizi diren atzerriko etorkinen inkesta

Helburu orokorrak Atzerriko etorkinen bizi-baldintzak ezagutzea, aztertzea eta ebaluatzea, Europar Batasuneko zein munduko gainerako herrialdeetatik datorrenena.

Organismo arduraduna Enplegua eta Gizarte Politikak Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística
Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Lau urtekoa
Eragiketa-mota Laginketa bidezko inkesta

010899 Kapital sozialaren inkesta

Helburu orokorrak Kapital sozialaren adierazleak lortzea, hura eratzeko mekanismoak aztertze eta ekonomia osoan duen garrantzia zenbatesteko modukoak.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak
Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Bost urtekoa
Eragiketa-mota Laginketa bidezko inkesta

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010901 Bizi-baldintzen inkesta**Helburu orokorrak** Euskal AEko biztanleria zein baldintza objektibotan bizi den jakitea.**Organismo arduraduna** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Beste organismo parte-hartzaileak** Enplegua eta Gizarte Politikak Saila**Gai-eremua** Demografia eta Gizarte-azturak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Bost urtekoa**Eragiketa-mota** Laginketa bidezko inkesta

010902 Denbora-aurrekontuen inkesta**Helburu orokorrak** Euskal AEko biztanleria egoiliararren ohiturak eta portaerak ezagutzea, egunean jarduera bakoitzean zenbat denbora ematen duten neurtuz.**Organismo arduraduna** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Beste organismo parte-hartzaileak****Gai-eremua** Demografia eta Gizarte-azturak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Bost urtekoa**Eragiketa-mota** Laginketa bidezko inkesta

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010903 Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta

Helburu orokorrak Biztanleria aktiboak lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruz bizi duen egoera aztertzea.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Urtekoa

Eragiketa-mota Laginketa bidezko inkesta

010904 Norberaren ongizate-inkesta NOI

Helburu orokorrak Ongizateari buruzko adierazleak lortzea, adierazle ekonomikoen osagarri

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Eragiketa berria

Hedatzeko aldizkakotasuna Bost urtekoa

Eragiketa-mota Sintesia

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010905 Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta

Helburu orokorrak Pobrezia-motak ezagutzea, aztertzea eta ebaluatzea, eta Euskal AEn nolako eragina duten neurtzea, baita gizarte-ezberdintasunari buruzko adierazleak lortzea ere.

Organismo arduraduna Enplegua eta Gizarte Politikak Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística
Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Lau urtekoa
Eragiketa-mota Laginketa bidezko inkesta

010906 Euskal familien eta familia-etxeetako arazo sozialak

Helburu orokorrak Etxeetako arazoak eta familien arazoak eta beharrianak ezagutzea, baita familiei laguntzeko programek horiengan duten eragina ere.

Organismo arduraduna Enplegua eta Gizarte Politikak Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística
Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Eragiketa berria
Hedatzeko aldizkakotasuna Lau urtekoa
Eragiketa-mota Laginketa bidezko inkesta

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010914 Gazteriaren panorama**Helburu orokorrak** Euskal gazteriari buruzko adierazle nagusiak argitalpen batean biltzea.**Organismo arduraduna** Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila**Beste organismo parte-hartzaileak** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística
Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Bi urtekoa**Eragiketa-mota** Sintesia

010915 Panorama demografikoa**Helburu orokorrak** Egoera demografikoari buruzko deskripzioa egitea, ondo ulertzeko aukera emanez.**Organismo arduraduna** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Beste organismo parte-hartzaileak**
Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Bi urtekoa**Eragiketa-mota** Bilduma

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

010930 Mugikortasunaren inkesta

Helburu orokorrak Euskal AEko biztanleen mugikortasuna neurtzea, igarotze-fluxuak, moduak eta joan-etorriak egiteko motibazioak eta arrazoiak.

Organismo arduraduna Ingurumena eta Lurralde Politika Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística
Gai-eremua Demografia eta Gizarte-azturak

Egoera Eragiketa berria
Hedatzeko aldizkakotasuna Bost urtekoa
Eragiketa-mota Laginketa bidezko inkesta

020702 Mapa soziolinguistikoa

Helburu orokorrak Hizkuntza-gaitasunaren, euskararen etxeko erabileraren eta euskararen familia-transmisioaren bilakaera (1981-2011) ezagutzea, eremu geografikoa (Euskal AE eta auzoa bitartekoa), adinak eta jatorria aintzat hartuta

Organismo arduraduna Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística
Gai-eremua Hizkuntzak

Egoera Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Bost urtekoa
Eragiketa-mota Sintesia

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

020703 Inkesta soziolinguistikoa**Helburu orokorrak** Familien euskararen ezagutzan, erabileran eta transmisioan sakontzea, baita euskararen erabilera sustatzeko jarreran ere.**Organismo arduraduna** Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila**Beste organismo parte-hartzaileak** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Gai-eremua** Hizkuntzak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Bost urtekoa**Eragiketa-mota** Laginketa bidezko inkesta

020709 Euskararen aurrekontuak**Helburu orokorrak** Erakunde publikoek (Europar Batasunekoak, Estatukoak, Jaurlaritzak, aldundiek, Legebiltzarrak eta 5.000 biztanlez gorako udalek) berariaz euskararen sustapenari esleitzen dizkioten diruzko baliabideen (euskara sustatzeko aurrekontuak) eta giza baliabideen azterketa zehatza egitea.**Organismo arduraduna** Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila**Beste organismo parte-hartzaileak** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística**Gai-eremua** Hizkuntzak**Egoera** Dagoeneko hasia**Hedatzeko aldizkakotasuna** Bi urtekoa**Eragiketa-mota** Bilduma

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

020711 Helduen euskalduntzearen estatistika: ikasleak eta euskaltegiak

Helburu orokorrak Helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen bilakaera ezagutzea.

Organismo arduraduna Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística
Gai-eremua Hizkuntzak; euskararen lurraldeak

Egoera Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Urtekoa
Eragiketa-mota Bilduma

020713 Euskararen gizarte-azpiegitura publikoen eta pribatuen zentsua

Helburu orokorrak Euskararen gizarte-azpiegituretan barne dagoen erakundea edo elkarte (publikoa eta pribatua) identifikatzea, haren jardun- eremua eta eremu geografikoa.

Organismo arduraduna Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística
Gai-eremua Hizkuntzak

Egoera Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Urtekoa
Eragiketa-mota Bilduma

020715 Funtzionarioen estatistika, euskara-mailaren arabera (hizkuntza eskakizuna) eta administrazio-motari jarraiki

Helburu orokorrak Euskal AEko administrazio publikoetako funtzionarioen euskalduntzearen bilakaera ezagutzea.

Organismo arduraduna Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Gai-eremua Hizkuntzak

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Bi urtekoa

Eragiketa-mota Bilduma

030501 Osasunaren inkesta

Helburu orokorrak Euskal AEko biztanleria egoiarraren osasun-maila hautemana, osasun-zerbitzuen erabilera eta bizi-ohiturak ezagutzea. Osasun hautemanaren eta osasunaren determinatzaile nagusietan dauden joerak monitorizatzea.

Organismo arduraduna Osasuna Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Gai-eremua Osasungintza eta Osasuna

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Bi urtekoa

Eragiketa-mota Laginketa bidezko inkesta

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

030502 Ospitale-estatistika**Helburu orokorrak** Euskal AEko ospitale-sistema publikoaren nahiz pribatuaren egoera ezagutzea eta ebaluatzea, plangintza egiteko oinarritzko euskarri gisa.**Organismo arduraduna** Osasuna Saila**Beste organismo parte-hartzaileak** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística
Gai-eremua Osasungintza eta Osasuna**Egoera** Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Urtekoa
Eragiketa-mota Zentsua

030503 Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa**Helburu orokorrak** Euskal AEko ospitaleez kanpoko sistema publikoaren egoera ezagutzea eta ebaluatzea, osasun-plangintza egiteko oinarritzko euskarri gisa.**Organismo arduraduna** Osasuna Saila**Beste organismo parte-hartzaileak** Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística
Gai-eremua Osasungintza eta Osasuna**Egoera** Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Bi urtekoa
Eragiketa-mota Zentsua

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

030505 Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen estatistika

Helburu orokorrak Euskal AEn diharduten asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen, Estatuak nahiz Europar Batasunekoan, egoera ezagutzea eta ebaluatzea.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak Osasuna Saila
Gai-eremua Osasungintza eta Osasuna

Egoera Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Bi urtekoa
Eragiketa-mota Zentsua

030506 Osasunaren panorama

Helburu orokorrak Osasunari lotutako informazio garrantzitsua ikuspegi ezberdinetatik biltzen eta laburtzen duen azterketa integratzailea egitea, eta nazioartean dugun egoera azaltzea. Genero ikuspegia kontuan hartuz eta sexuari lotutako gaixotasunen estatistikak desagregatuz.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak
Gai-eremua Osasungintza eta Osasuna

Egoera Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Lau urtekoa
Eragiketa-mota Sintesia

030507 Osasun-adierazleak

Helburu orokorrak Osasuna neurtu eta baloratzeko alderdi garrantzitsuenei buruzko adierazle nagusiak biltzea, nazioarteko erakundeek onartutakoak, luzetarako eta zeharkako ikuspegitik konparatzeko markoa sortuz. Genero ikuspegia kontuan hartuz eta sexuari lotutako gaixotasunen estatistikak desagregatuz.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Osasungintza eta Osasuna

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Etengabea

Eragiketa-mota Bilduma

030508 Euskadi eta drogak

Helburu orokorrak Euskal AEn substantzia psikoaktibo zenbaiten kontsumo egoeraren eta eboluzioaren berri izan eta herritarrek drogen fenomenoari buruz eta droga-mendekotasun alorreko politika publikoei buruz duten pertzepzioaren berri izan.

Organismo arduraduna Osasuna Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Gai-eremua Osasungintza eta Osasuna

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Bi urtekoa

Eragiketa-mota Laginketa bidezko inkesta

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

030509 Gizarte integrazio eta osasunaren inkesta

Helburu orokorrak Osasun baldintzen, jarduera mugatzearen eta gizarte integrazioaren arteko elkarrengaitza aztertzea, ezgaitasun eragile gisa

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak Osasuna Saila

Gai-eremua Osasungintza eta Osasuna

Egoera Eragiketa berria

Hedatzeko aldizkakotasuna Ez-finkoa

Eragiketa-mota Laginketa bidezko inkesta

030510 Elikadura inkesta

Helburu orokorrak Elikadura ohiturak, dieta patroiak ezagutzea

Organismo arduraduna Osasuna Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Gai-eremua Osasungintza eta Osasuna

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Bi urtekoa

Eragiketa-mota Laginketa bidezko inkesta

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

030580 Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Helburu orokorrak Biztanleek dituzten gaixotasunen eta horien ondorioen azterketa eta kuantifikazioa, ospitale publiko eta pribatuetako alta-txostenetan bildutako datuak aintzat hartuta. Genero ikuspegia kontuan hartuz eta sexuari lotutako gaixotasunen estatistikak desagregatuz.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Osasungintza eta Osasuna

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Urtekoa

Eragiketa-mota Zentsua

030581 Gizarte-ezberdintasunak erikortasunean

Helburu orokorrak Ospitale edo anbulatorioetan arreta jaso duten Euskal AEko biztanleen erikortasunaren ezberdintasun sozialak aztertzea eta monitorizatzea. Genero ikuspegia kontuan hartuz eta sexuari lotutako gaixotasunen estatistikak desagregatuz.

Organismo arduraduna Osasuna Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Gai-eremua Osasungintza eta Osasuna

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Bost urtekoa

Eragiketa-mota Beste batzuk

030582 Minbiziaren eraginean eta hura gainditzeko aukeretan dauden ezberdintasun sozialak

Helburu orokorrak Ezberdintasun sozialek minbizian eta minbizia diagnostikatu zaien pertsonen biziraupenean duten eragina aztertzea eta monitorizatzea. Genero ikuspegia kontuan hartuz eta sexuari lotutako gaixotasunen estatistikak desagregatuz.

Organismo arduraduna Osasuna Saila

Beste organismo parte-hartzaileak Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística
Gai-eremua Osasungintza eta Osasuna

Egoera Eragiketa berria
Hedatzeko aldizkakotasuna Bost urtekoa
Eragiketa-mota Beste batzuk

040601 Eskola-jardueraren estatistika

Helburu orokorrak Euskal AEko hezkuntza-sistemaren (unibertsitatearen aurreko mailak), publiko nahiz pribatuaren, egoera ezagutzea eta balioestea, kudeaketa eta plangintza egiteko oinarritzko euskarri gisa.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak
Gai-eremua Hezkuntza eta Ikerketa

Egoera Dagoeneko hasia
Hedatzeko aldizkakotasuna Urtekoa
Eragiketa-mota Zentsua

040603 Unibertsitatearen estatistika

Helburu orokorrak Euskal AEko hezkuntza-sistemaren (3. mailako ikasketak), publikoaren nahiz pribatuaren, egoera ezagutzea eta balioestea, plangintza egiteko oinarritzko euskarri gisa. Hizkuntzen erabilera gradu eta graduondoko ikasketetan: ikasleak, kreditu kopuruak hizkuntzako, eta hizkuntza-adierazleak, bereziki euskarari dagozkionak.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Hezkuntza eta Ikerketa

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Urtekoa

Eragiketa-mota Zentsua

040605 Hezkuntzaren panorama

Helburu orokorrak Argitalpen batean biltzea Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-adierazle nagusiak, alderaketak egin ahal izateko beste autonomia erkidego eta europar eskualde batzuekin, baita interesgarri irizten den beste esparru erreferentzial orekin ere.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Hezkuntza eta Ikerketa

Egoera Eragiketa berria

Hedatzeko aldizkakotasuna Lau urtekoa

Eragiketa-mota Sintesia

2014ko azaroaren 19a, asteazkena

040606 Hezkuntzaren udal estatistika

Helburu orokorrak Udalerri mailako hezkuntzari lotutako banakako informazio zehatza biltzea, integratzea eta ustiatzea. Horretarako, batez ere administrazio esparruko informazioa behar da, banakakoa eta identifikatua.

Organismo arduraduna Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Beste organismo parte-hartzaileak

Gai-eremua Hezkuntza eta Ikerketa

Egoera Dagoeneko hasia

Hedatzeko aldizkakotasuna Urtekoa

Eragiketa-mota Zentsua

042911 Irakaskuntza publikoaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika

